

ARANTZAK, LARROSAK, BIZITZA

Miren Deskarga

Eratsun, 2006ko apirilaren 3an

Bizitzan larrosak garrantzitsuak dira, baina askotan ahazten zaigu larrosek bereak dituztela arantzak eta ezinbestekoak direla...

Bizitzak baditu bide asko bideetan badaude larrosak larrosek badituzte alde onak alde onek ematen digute alaitasuna alaitasunak pizten digu bihotza bihotza da izatearen arima arima da gure izatea gure izate honetan dira garrantzitsuak larrosak larrosek badituzte ere arantzak arantzak dira mingarriak mingarriak dira gure minak minak, berriz, bizitzan beharrezkoak biziak bideetan larrosak alde onak alaitasunak bihotza arima gure izatea larrosek arantzak mingarriak minak.

Larrosak arantzak dituen moduan bizitzak ere noizbehinka trabak jartzen dizkigu eta guk munduko pertsonarik zoritxarrekoenatzat, zorigaitzokoenatzat daukagu geure burua, eta gure autoestima hankazpira jaisten da, ispilura begiratu eta munduko pertsonarik itsusienatzat daukagu geure burua eta egin nahi dugun zerbaiten aurrean gaudenean ez gara gai sentitzen. Geure ilusioei eta ametsei harresi bat jartzen diegularik, gizartea gure aurka bailegoen, aurka daukaguna geure segurtasun eza bakkarrik denean.

Erlazioetan, berriz, gu geure buruarekin gaizki bagaude, nola egongo gara, bada, ongi ondokoekin? Badakit, ni, azkenaldian, arraro xamar nabilela eta nire portaera dela, eta bion arteko lagunta-

sun honen erdian eroritako harriztar bat besterik ezin dela ikusi. Elkarrekin egingako bidea oztopatua geratu da. Ni burugorra eta zu ere bai. Ni jo eta ke nirearekin eta zu, berriz, etengabeen zurearekin. Begira, hotzean begiratuta, ordea, ez dut uste tontakeria honengatik gure arteko laguntasun polit hau galtzerik merezi duenik.

Begira, bizitza errusiar mendiaren antzekoa da, batzuetan oso ongi gaude eta goruntz goaz. Ondoren arazoak sortzen dira eta beheruntz goaz lurra joko dugun ustez, kobazulo ilun eta beldurgarri horretatik inoiz aterako ez garela pentsatuz, baina hau horrela da zuretzat, niretzat, guztiontzat... eta eskererak horrela den. Pentsa beti zorionsu izango bagina, ez litzateke aspergarria izanen?

Beno, erlazioetan eta gure elkarbizitzan ere hau gertatzen da, batzuetan izugarri ongi gaude elkarrekin eta beste batzuetan ez gaude ongi, ez dugu elkarrekin egon nahi. Baina ez al zaizu iruditzen honek geure burua ezagutu eta bata bestea gehiago ezagutzeko aukera ematen digula?

Ez al duzu uste osasungarriak direla krisiak gure laguntasuna sustatu eta indartzeko?

Beno, bada, nik horrela dela uste dut eta, gainera, uste dut gauzak hitz egin behar direla. Zurekin geratu nahiko nuke honi buruz lasai hitz egin eta gauzak konpontzeko. Zer diozu? Dei iezadazu eta hitz egingo dugu, badakizu,

bide asko larrosek badituzte alde onak alaitasuna bihotza arima gure izatea garrantzitsuak larrosak ere arantzak dira mingarriak gure minak baina bitzitzan beharrezkoak.

Miren Deskarga Baztarrika. Tolosan jaioa 1976an, baina izatez eratsundarra. Idazle eskolako 1. urteko ikaslea.

